

UDA IKASTAROA 2018

“EL IMPACTO SOCIAL DE LA ACTIVIDAD UNIVERSITARIA”



EHUren Uda Ikastaroen esparruan, 2018ko uztailaren 5ean eta 6an Unibasqek antolatutakoa egin zen, erakundearen zuzendariondoko Aitor Zurimendi Islaren zuzendaritzapean, eta bertako zuzendari Eva Ferreirak irekiz. ([Programa](#))

Ekitaldia Donostiako Miramar Jauregian egin zen eta estatuko eta nazioarteko hizlariak bildu zituen, hala eremu akademikokoak nola eremu profesionalekoak.

“Unibertsitate-jardueraren eragina gizartean” izenburua zuen aurtengo uda-ikastaroaren helburuak honako hauek ziren:

- Unibertsitate-jarduerak gizartearentzat eragin onuragarriak sortzen dituen arloak identifikatu eta nabarmentzea: garapen ekonomiko eta industrial, gizarte-ongizatea eta bizikidetz, kultura, ingurumena, eta abar.
- Unibertsitate-sistementzat nahiz oro har gizartearentzat unibertsitatearen gizarte-inpaktua neurtzeko komenigarritasun, bideragarritasun eta beharri buruzko hausnarketa egitea.
- Unibertsitate-jardueraren gizarte-inpaktuaren ebaluazio-sistemen eraginkortasuna ezagutu eta aztertzea, Europan eta nazioartean nola egiten duten alderatuz.
- Unibertsitate-jardueraren gizarte-inpaktua neurtzen lagunduko duten ebidentziak, jarduerak eta adierazleak identifikatzea, hala erakunde-mailan (zentroa edo unibertsitatea), nola maila indibidualean (irakasleak eta ikertzaileak).

Ikastaroa Unibasqeko zuzendari Eva Ferreirak ireki zuen, hausnarketa bat eginez honako izenburu honi lotuta: **“zergatik eta zertarako da ona unibertsitate-jarduerak gizartearen duen eragina neurtzea?”**, bertan ikastaroak izan zezakeen interesarekiko oinarriak ezarriz.



Ondoren, lehen saioa hasi zen, honako izenburu honekin: **“Unibertsitate-jarduerak eragina duen eremuak: intentsitate kuantitatiboa eta kualitatiboa”**, eta honako hizlari hauek izan zituen:

Eva Caballero Domínguez, kazetaria, EITB
Eduardo Arechaga Cilleruelo, zuzendari nagusia, Confebask
Juan Manuel Balerdi Urdanpileta, zuzendaria, Euskal Fondoa

EITBko kazetari Eva Caballerok saioa ireki zuen esanez zientziari eta teknologiari lotuta dauden gaiekiko interesa handitzen ari dela, batez ere medikuntza eta osasunari lotutako gaien hedapenetan, baina interes hori adinean aurrera egin ahala txikiagotu egiten da. Genero-joera bat ikus daiteke, gizonezkoen alde, baina azken bi urteotan murriztu egin da.

Interes-faltaren aurrean, Eva Caballerok adierazi zuen gai jaki batzuen kasuan lanbideen arabera aldakorra zela, eta oro har gizartearen balioespena positiboa dela.

Gizarteak zientzia-dibulgazioarekiko duen interesa handitzeko xedez, Caballerok azken urteotan hainbat ikastetxetan egiten ari diren ekimen batzuk aurkeztu zituen, adibidez Zientziaren Astea, Zientzia Azoka, edota Zientzia uhinetan, azken hori gero eta entzule gehiago dituen irrati-programa izaki. Ikastetxeek ekimen horien eskaera handia egiten dute.

Ekimen horiei buruz hitz egiteaz gain, azken zazpi urteotan jendearen harrera onarekin egiten ari diren ekitaldiak aipatu ziren, adibidez *Naukas* Bilbon, edo *Bizkaia Zientzia Plaza*, irailean egingo dena eta hiriburua-esparrua gairatzen eta azkenik herrietara iristen saiatuko dena bere *Jakinduriel mundue erreko dau! Bertsozientzia* ekitaldiarekin; kasu honetan, Bizkaiko hiriburura joateaz gain Ondarroara, Getxora eta Igozera ere joango da.

Bestalde, adierazi zen gaur egun dibulgazio-bitartekorik handiena Internet dela, orain arte telebistak, prentsa idatziak eta irratiak betetzen zuten zeregina neurri handi batean ordeztuz, sare sozialak izanik zientzia-jakintzaren iturri nagusia, baina ohartarazi ziguten Whatsapp arriskutsua dela, kasu askotan dibulгатzen diren edukiak ez datozelako iturri kontrastatu edo fidagarrietatik, eta horrek eduki garrantzigeak edo zuzenak ez direnak hedatzea dakar.

Komunikabideetan zientziari buruz hitz egitea zergatik den zaila galderaren aurrean, Caballerok honako gai hauek aipatu zituen: komunikabideetan diharduten profesionalen prestakuntzarik eza, produkzio ezegonkorra, izenburu zirrargarria bilatzearen ondoriozko sentsazionalismoa, eta prentsa-oharretan ematen den merkataritza-interesek alboratutako informazioa, eta era berean Influencerrek eragin dezaketen inpaktu negatiboari eta Fake news deitutakoei buruz hitz egin zuen.

Balizko hobekuntza-arloei dagokienez, Eva Caballerok azpimarratu zuen galderak aurretiaz prestatu behar direla elkarrizketak ondo prestatzeko, eta horrela, galdera horiek egiten direnean, modu arin eta zehatzean, hizkuntza ulergarriarekin eta oinarritzko nozioak adieraziz egingo dira, edukien komunikazio eta hedapenaren eraginkortasuna murrizten duten lotu gabeko hari-muturrik edota informazio partzialik gabe.

Azkenik, bere mintzaldia ixteko The Conversation izeneko blogen plataforma aipatu zuen, komunikazioaren munduan murgiltzeko tresnak ematen baititu, eta esaldi bat jarri zuen mahai gainean, eduki tekniko eta zientifikoaren komunikazio eta dibulgazioaren eraginkortasuna areagotzeko moduari buruzko hausnarketa egiteko: Gogoberotasuna kutsatu egiten da.

Goizeko bigarren hizlaria Confebaskeko zuzendari nagusi Eduardo Arechaga Cilleruelo izan zen, “Unibertsitate-jarduerak eragina duen eremuak: intentsitate kuantitatiboa eta kualitatiboa” ([“Ámbitos en los que impacta la actividad universitaria: intensidad cuantitativa y cualitativa”](#)). izenburuko hitzaldiarekin.

Arechagak hainbat indar-ideia aurkeztu zituen, adibidez **enpresak Unibertsitatearen zereginari buruz duen ikuspegia**, bikaintasunerako prestakuntza, oinarritzko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren arteko oreka eta, batez ere, jakintza enpresara transferitzea eskatzen baitu, horrek elkarren arteko lotura areagotuko duelako eta etengabeko prestakuntzaren eta oinarri teknologikoa duten enpresa berrien sorkuntzaren eskaerari erantzun egokia emango diolako.

Era berean, azpimarratu zuen **Enpresa unibertsitatearen bezero gisa** kontuan izaten dugunean enpresak beharrezko profilak eta jarrerak dituzten pertsonak eskatzen dituela.

Ikerketa eta jakintza-transferentzia.

Arechagak adierazi zuen unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzaren kantitatea Euskadin Estatuko gainerako lekuetan baino txikiagoa dela, eta **unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzapremia** larria dagoela.

Unibertsitatea-Enpresa Lehen Estrategiaren sorrerak muga bat ezarri du, gako-hitz bat sendotuz, lankidetzaren hain zuzen ere, **gradu dual** berrietan islatuta ikusten dena, nahiz eta lankidetzaren hiru eremutan zehaztu behar den:

Unibertsitatea-Enpresa, Unibertsitatea-LH eta Unibertsitatea-Unibertsitatea.

Etorkizuneko erronkei dagokienez, **Arechagak** hiru adarretan taldekatu zituen:

- Pertsonak—> Stem adarretan egresatuen kopuru handiagoa lortzea, unibertsitateko ikasleengan enpresabaliok sustatzea, langileen etengabeko prestakuntzarekiko inplikazioa lortzea.
- Irakaskuntza—> gradu dualen hedapena, unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren arteko lankidetzaren areagotzea, eta curriculumaren enpresen eskarietara orientatzea.
- Ikerketa eta jakintza-transferentzia—> RISS 3ren espezializazio-ardora orientatua: energia, manufaktura aurreratua eta bio-osasuna, eta unibertsitate-enpresa lankidetzaren handiagoa.

Eduardo Arechagaren aurkezpena amaitu ondoren, **Euskal Fondoaren** zuzendari [Juan Manuel Balerdi](#) Urdanpiletari eman zitzaion hitza, eta ikasleek GKEekin egindako lankidetzaren bitartez egiten dituzten praktikei buruz hitz egin zuen. Bere erakundeak sustatutako ekimenekin zer egiten zen eta zer lortzen zen azaltzeko, adibidez [Gaztenpatia](#) ekimenarekin, euskal gazteriaren eta lankidetzaren egiten den beste herrialde batzuetako gazteriaren arteko enpatia eta elkartasuna sustatzen duen kulturen arteko proiektua, praktikak eta Gradu Amaierako Lanak Euskal Fondoak Erdialdeko Amerikan bazkide dituen erakundeek egikaritzen dituzten garapen-proiektuekin lankidetzan eginez.

Ondoren, EHUren lankidetzaren bulegoaren jardura azaltzen duen [bideo](#) bat ikusteko aukera izan zen; hiru urte daramatza laguntzen, eta batez ere etorkizuneko profesionalen kontzientzia piztu nahi du.

Lortu nahi da ikasleek, aurkeztutako lanen bitartez, sare sozialak baliatuz edukiak komunikatzen eta hedatzen ikas dezatela, eta sare sozialetatik ebaluatuko dituzte nota jartzeko. Balerdi bere aurkezpenean aipatu zuen beste gai bat [El Oasis de la Memoria](#) izan zen; hainbat jardura profesionalek kide garrantzitsuekin lankidetzan egindako proiektua da, non dokumentu-oinarri batzuk finkatu diren eta jurisprudentzia ezartzen ari diren nazioarteko justiziaren aurrean Saharako kasua bezalako gaiak aurkeztu ahal izateko.

Aurkezpenen ondoren galdera-txanda ireki zen, eta ondoren bildutakoak azpimarra daitezke:

Lehenik eta behin, adierazi zen enpresa eta unibertsitatearen arteko finantza-inplikazioaren bolumena txikia dela estatuko gainerako lekuekin alderatuta, eta honako galdera hau egin zen: zer egingo da datu hori aldatzeko? Horri erantzunez, adierazi zen Euskadin jadanik parke teknologikoen figura daukagula, eta egungo kezka pertsonen baliagarritasuna dela. Egresatuen kopurua handitu beharko litzateke, ez badugu nahi beste autonomia-erkidego batzuetatik inportatu behar izatea. Bestalde, seriooki planteatu beharko genuke langabeen prestakuntzako eguneratzearen garrantzia, euskal enpresan berriz ere sar daitezen.

Era berean, Salustiano Matok adierazi zuen euskal sistema oso indartsua dela eta ez zegoela ados Confedebaskek emandako datuekin. Bere galdera Stem munduari lotuta zegoen, eta kontsultatu zuen ea hizlarien ustez haren egungo egoerak balioen gaitan izandako gizarte-inboluzio batekin loturarik ote duen eta genero-erlazioa zein izan zitekeen.

Hizlariak bat zetozen erantzunean, eta adierazi zuten ez zutela ikusten inboluziorik, eta hainbat karrera profesionaletan emakumearen inkorporazioa hobetu behar dugula.

Eva Caballerok gainera adierazi zuen ikasleei galdetzen ziela zergatik ez zeuden neska gehiago, eta erantzun ohikoenetako bat zen karrera horiek "ez direla neskentzat", eta taldearen indarrak bultzatzen zituela sentitzen zutela. Azpimarratu zuen nortasun handia eta bokazioa oso argi eduki behar direla taldearen presioari aurre egiteko.

Eva Ferreirak ikerketaren egoerarekiko interesa azaldu zuen, eta galdetu zuen merezi ote duen asko ezagutzen den gai bati buruz ikasteko ahalegina egitea, eta gaur egun irakaskuntza dualarekin eskaintzen den lankidetzaren aukera aipatu zuen, emakumeen presentzia susta daitekeela eta ikerketa-proiektuak areagotu daitezkeela adieraziz.

Ildo horri jarraikiz, Ester Domínguezek adierazi zuen doktoreen zeregina oraindik ere ikerketa dela eta doktoreak erakartzeko enpresa-erakargarritasunik ez dagoela.

Amaierako gogoeta gisa adierazi zen doktoregoak enpresetara hurbildu beharko liratekeela, graduekin eta Masterrekin egin den bezala, eta unibertsitatek ezarri behar dela doktorego batek zer ekarpen egiten duen.

Lleidako Unibertsitateko ekonomia aplikatuko irakasle [Teresa Torres Solék](#) unibertsitatearen eskaeraren inpaktuari buruz hitz egin zuen, eta unibertsitatearen presentziak tokiko ekonomiaren hainbat mailatan izan dezakeen eraginari buruzko hainbat datu aurkeztu zituen.

Torresek adierazi zuen unibertsitateak gastua eta eskaria sortzen dituela zuzenean nahiz zeharka, eta hori frogatzeko Lleidako Unibertsitateari dagozkion datuak aurkeztu zituen.

Salustiano Matok, katedraduna eta Vigoko Unibertsitateko errektore ohia izaki, ***“Jakintza-transferentziari prestigioa eman, sustatu eta saritzea”*** (***“Prestigiar, impulsar y premiar la transferencia de conocimiento”***) izenburuarekin egindako aurkezpenean, adierazi zuen jakintza-transferentzia zer den eta proposatu zuen prestigioaren bitartez transferentzia nola susta daitekeen; eskuratutako jakintza partekatu egin behar da unibertsitateekin, enpresekin eta enplegu-eragileekin, erakunde publikoekin eta batez ere zuzen-zuzenean gizartearekin. Adierazi zuenez, hori ondo egiten bada ekonomia- eta enplegu-hazkundera, politika publiko hobek eta gizarte-proiektzioa lortuko da, batez ere herritarrengan pentsatuz. Jakintzaren ekonomiaren oinarria kapitala jakintzaren mende egotea da.

Transferentzia balioesteko eta neurtzeko moduari eta pertsona batengan transferentzia neurtzeko moduri dagokienez, uste du neurri handiagoan kualitatiboki egin behar dela kuantitatiboki baino, eta adierazleek hainbat kasutan ez dutela zerikusirik emaitzekin.

Matok adierazi zuen gastu-kontrolerako kultura handia dagoela, baina ez ordea irabazi-sorkuntza erakartzeko kultura.

Azpimarratu zuen unibertsitateak kultura-sorkuntza, garapen, hazkundera eta berrikuntzaren eragile izan behar duela sektore guztietan eta ez soilik bizitza akademikoaren eremu hertsian.

Amaierako ondorio gisa adierazi zuen datu ekonomikoak garrantzitsuak direla, baina ez dugula ahaztu behar guk egiten duguna humanizatu egin behar dugula.

Galdera-txandan adierazi zen adierazleak maltzurak direla, ez liratekeela erabili beharko eta kontu handia izan beharko genukeela eta adierazleak erlatibizatu beharko genituzkeela, unibertsitate bakoitzaren errealitatearen irudi ez hain distortsionatua ikusteko, unibertsitateen artean ranking batean posizionatzeko dagoen lehia oinarritu gabe.



Norberak bere buruarekin lehia aritzeko balio beharko lukete, etengabeko hobekuntza lortzeko xedez. Hausnarketa: ikasleen kopurua jaisten ari denez, irakasleak sobera egongo dira. Beste zeregin batzuk egiten dituzte edo fakultateek rankingetan dituzten posizioak hobetzen dituzte ikasleak erakartzeko. Etorkizuna gizarte-garapeneko agente izatea da. Salustianok defendatzen du fakultate bakoitzak hobetu behar duela bere buruari begira, eta ez beste batzuekin alderatuta. Matok defendatu zuen pertsona baten jardura eta erakunde baten jardura modu desberdinean neurtu behar direla, alderdi kualitatiboak nagusi izan behar duela, lan askoz handiagoa eta kezka sortu arren. Listoia ez da neurtu behar modu berean norbanako bakoitzarentzat, ezta erakunde bakoitzarentzat ere ez, erakunde horietako bakoitzaren eskura jarritako bitartekoak desberdinak direlako. Egindako ekarpenetako bakoitzak lortutako inpaktua modu bereizian izan behar da kontuan. Hori ebaluatu behar duenaren profilak ez du izan behar ohiko unibertsitate-irakaslearena bezalakoa. Transferentziaren eragina hainbat kasutan oso epe luzera neurtu daiteke. Ikerketa baten emaitzak erraz eskualdatu daitezke, baina dibulgazio zientifikoa beharbada ez da gauza bera. Adierazi zen beharbada agentzien zereginak desberdina izan beharko zukeela irakaskuntza ebaluatzeko moduari dagokionez. Adierazi zen unibertsitate bakoitzak erabaki behar duela zer lehenetsi nahi duen, eta irakasle askoren arteko interakzioa oso desberdina dela prentsak lankidetzara eskatzen duenean. Hainbat pertsona jadanik konprometituta daude prentsa-bitartekoetako dibulgazioarekin, ikastetxeetarako bisitekin, unibertsitate-jardurekin eta abar. Eta pertsona batzuk horietako batzuekin edo guztiekin gainera.

Lankidetzari dagokionez adierazi zen gutxi garatu eta ustiatu den esparrua dela; diziplina anitzeko lankidetzek oso inpaktu garrantzitsua eragiten dute, hemen ikusten ez bada ere.

Adierazle-taulari dagokionez, adierazi zen abiapuntu gisa erabili beharko litzatekeela hamazazpi unibertsitate-eredu desberdinei buruzko irizpideak bateratuko dituen eta Espainiako Unibertsitatearen errealitatearen argazki zehatzagoa lortzeko aukera emango duen elkarrizketa ezartzeko eta hori kuantifikatuko duten adierazleak adosteko.

Hainbat gai ukiezin ezin dira neurtu adierazleekin, baina argi dago gai ekonomikoak kontuan izan behar direla. Matok, amaitzeko, adierazi zuen dena kuantifikagarria den arren interesgarriagoa dela egiten den ekarpenaren kalitatea neurtzea, gainditu beharreko lista non ipini behar den balioetsiz.

Uztailaren 6ko lehen saioa Londresko UCLko katedradun eta zeinu-hizkuntzari buruzko ikertzaile **Bencie Wollen** hitzaldia izan zen, honako izenburu honekin ["History of research assessment: The research assessment Exercise."](#) Wollek adierazi zuen baliabide ekonomiko mugatuagoak zituzten hainbat unibertsitatek arazoak izan zituztela Research Excellence Framework (Bikaintasun Esparrua Ikerketan) izenarekin abian jarritako ebaluazio-sistemari aurre egiteko gai ziren langileak erakartzeko, eta horren ondorioz gero eta gehiago ahuldu ziren eta hainbat ikertzailek beste zeregin batzuk egin behar izan zituzten, exijitzen zitzaizkien ebaluazio-irizpideak gainditzeko gai ez zirelako.

Wollek adierazi zuen ikerketaren eragina funtsean ez dela eragin akademikoa, baizik eta tokiko ekonomian, kulturen, politika publikoetan edota zerbitzuei, sanitateari, ingurumenari edo bizi-kalitateari lotutako politiketan sortzen duen eragina, aldaketa edo onura.

Eragina neurtzeko zailtasuna aipatu zen, baita ikertzen den guztiak eragin bat izateko zailtasuna ere, baina era berean adierazi zuen eragina izaten ikasten lagundu behar dela eta eragin hori ez dela beti epe laburrean lortzen. Bencie Wollek proposatu zuen ikerketa-proiektu bat hasi baino lehen planteatu behar dela nori egingo dion mesede eta nola, proiektuak espezifikoa izan behar duela, baina eremu generalistakoa, eta joera berriekin batera finantzaketa-modu berriak bilatu behar direla, adibidez "Crowdfunding" delakoa.

Ikerketari buruzko gai horiek guztiez gain, Wollek azaldu zuen Erresuma Batuan erakundeak eta ikertzaileak ebaluatzeko sistema nolakoa den, eta hitzaldiaren amaieran gai horri buruzko galderak egin zizkioten; galderei erantzunez, ebaluatzaileei konpentsazio gisa eskaintzen zitzaizkien ordainsari ekonomikoak azpimarratu zituen, parte-hartzea erakargarriago bihurtzen baitzuten.



Ondoren, Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta CIES Fundazioko presidente **Isabel Vidal Martínezek** UNIBILITY Project delakoari buruz hitz egin zuen [**“UNIBILITY Project- University meets Social Responsibility”**](#) izeneko aurkezpenean.

Vidalek adierazi zuen proiektu horrekin honako hau lortu nahi dela: unibertsitateak bere lurraldean duen eragina handitzea eta gizarte-erronka berriei aurre egitea; ikerketaren elkar-ulertzean aurrerantz egitea; lankidetzaz sakontzea; eta joera politiko publiko eta finantzaketa-iturri berrietara egokitzea.

Helburu horiek lortzeko lau fase igaro ziren: lehena, prestakuntza-materialaren garapenari lotuta; bigarrena, administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntzari lotuta; hirugarrena, inplementazioari buruzkoa, zeina ikasleentzako zerbitzuengatik ikaskuntza-proiektuen, enprekin izandako elkarriketaren eta GKEekin egindako elkarriketen bitartez aztertu zen; eta dibulgazioko azken fase bat, UGERi buruzko liburu baten idazkuntzan, nazioarteko konferentzia batean eta 6 informazio-aldizkaritan isla izanik.

Eguneko bigarren hitzaldiaren izenburua **“Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek garatutako gizartearekiko transferentzia- eta eragin-jarduerak”** izan zen, eta honako hauen kargura egon zen:

Arturo Muga, UPV/EHU. - Garapen Zientifikoko eta Transferentziako errektore-ordea.

Idoia Peñacoba Etxebarria, Mondragon Unibertsitatea - Idazkari nagusia.

Cecilia Martínez Arellano, Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea. - Unibertsitateko Gizarte Erantzukizunaren Arloko zuzendaria.

Hiru hizlariak ados egon ziren eta adierazi zuten ikerketarako eta jakintza transferitzeko lankidetzaren ereduak funtsezkoak direla, eta enpresa-munduaren eta oro har gizartearen eskariei erantzuna emateko xedez gradu dualak areagotzea gero eta beharrezkoagoa dela.

Azpiratu zen ikasleen parte-hartzea, baita enpresen lehiakortasuna hobetzeko emandako laguntza eta profesionali emandako etengabeko prestakuntza ere, eta mahai gainean jarri zen sare sozialak ikerketen eta lankidetzaren hedapen-zereginetan hasi direla.

Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek euren jatorriak eta bokazio sozialak azaldu zituzten, eta ados zeuden adierazi zenean unibertsitatearen balio merkantilistak ez duela nagusitu behar, beste hainbat balio ukiezinek baizik, eta balio horiek beti epe laburrerako aldeko emaitzak ematen ez dituzten arren, epe ertain eta luzerako gizarte-hobekuntzak bultzatzen dituzte.

Irakasleei pizgarriak emateari dagokionez, hiru unibertsitateak ados daude eta adierazi dute bikaintasuna beti saritu egin behar dela, baina ez ordea kasu guztietan diru kopuru bat emanez.



Azkenik, uda-ikastaroa ikasleen ikuspuntuarekin itxi zen, hain zuzen ere honako ordezkari hauekin:

- **Adrian Llorente Aginagalde** UPV/EHU - Doktoregaia osasun publikoan.
- **Alex Abuin Yepes** UPV/EHU - Doktoregaia Informatika Ingeniaritzan.
- **Naiara Campo Alba** Mondragon Unibertsitatea - Industria Ingeniaritzako Masterra.
- **Andrea Diéguez Vázquez** Universidad de Deusto – Master ikaslea.

Ikasleek hainbat gai jarri zituzten mahai gainean, uste baitzuten unibertsitateek ez zituztela kontuan hartzen behar zen neurrian, ikasleen parte-hartzerako plan artikulaturik ez izateak ari uzten duen bezala.

Bertan zeuden unibertsitate-erakundeen ordezkariak erantzun zuten datuak campusen arabera artxibatzen zirela, eta horregatik erakunde-arloan estrapolatzea zaila zela.

Ikasleek azpimarratu zuten beste gai bat baliabideak izan ziren, dakarren gastua gehiago neurtzen delako izan dezakeen eragina baino; erakundeek arreta handiagoa eskaintzen diote euren irudi instituzionalari eta prestigioari gizartean izan dezakeen eraginari baino.

Ikasleek era berean azaldu zuten hona etortzen diren atzerriko ikasleen tasa aipatzen dela, ez ordea hemendik atzerrira joaten direnena, eta graduaren araberrako ikasketen uzte-tasa aipatu beharko litzatekeela.

Praktikei dagokienez, identifikatu zuten osorik ez zaiela begiratzen, eta praktika jakin batzuk bakarrik izaten direla kontuan, kasu askotan patenteak balioetsiz, baina haien ustez ikusi beharko litzateke ikasleek nola eta zein mailatan parte hartzen duten.

Ikasle eta enpresen arteko lotura unibertsitatean agerian eta bistan dago gai teknologikoei dagokienez, baina ikasleek adierazi zuten humanitateek ez dutela izaten eragin edota ikusgarritasun handirik. Horri lotuta, unibertsitate funtzionala eta intelektuala duten pertsonentzako ekimen sozial inklusiboak aipatu ziren, adibidez antzerkia eta dirua biltzeko kanpainak Amazonaserako, eta gai horiek zuzeneko eragina dute pertsona horiek ikusten direlako eta gizarte-sarea eta ahalduntzea sortzen direlako.

Ikasketa-lana alternantzia oso positiboki balioetsi zen, zuzeneko eragina argi eta garbi erakusten duelako eta ikasgelan eskuratu ezin diren balio osagarriak ematen dituelako.

Azkenik, ikasleek adierazi zuten ez dagoela puntu bat non ideiak azaldu daitezkeen talde antolatu bateko kide izan gabe, eta jarduerari buruzko komunikazioa eta hedadura sortu behar dela.

Ondorioetan ikasleen aintzatespen espezifikoa lortzeko nahia gaineratu zuten, baita ikasketa-lana alternantziaren abantailen eta gizarte-zereginaren ponderazio handia ere.